

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

3634

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita zein erakundek jaso dituzten desabantaila-egoeran dauden taldeetako pertsoneri zuzendutako orientazio profesionaleko ekintza eta zerbitzuak gauzatzeko laguntzen 2021-2023ko deialdiaren babesean eman diren dirulaguntzak.

Dirulaguntza publikoak ematean nahitaezkoa den publikotasun-printzipioa betetze aldera, desabantaila-egoeran dauden taldeetako pertsoneri zuzendutako orientazio profesionaleko ekintza eta zerbitzuak gauzatzeko 2021-2023ko laguntzak (erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak onartuta, 2021eko maiatzaren 25eko bilkuran, eta 2021eko ekainaren 15eko EHAAn argitaratuta, 116. zk.) 18.7 artikuluan honako hau ezartzen du: prozeduraren ebazpena Lanbide-ren webgunean argitaratzeaz gainera, deialdi horren babesean emandako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baita bakoitzak jaso duen zenbatekoa ere.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea desabantaila-egoeran dauden taldeetako pertsoneri zuzendutako orientazio profesionaleko ekintza eta zerbitzuak gauzatzeko 2021-2023ko laguntzen deialdiaren babesean emandako dirulaguntzen onuradun izan diren erakundeen zerrenda, eta bertan ondo zehaztea espediente-zenbakia, erakunde onuradunaren izena eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ebazpen honen eranskinean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.– Berriaz jakinaraztea deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduerak EGF Europako Gizarte Funtsaren finantzazioa ere jaso dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 aldirako EGFren Programa Eragilearen esparruan, 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Eragilearen esparruan eta/edo 2021-2027 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus Programa Eragilearen esparruan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 8a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

Espediente-zk.	Erakundea	Dirulaguntza (euro)
2021/COLEC/000001	Asociación reinserción social Sartu-Álava	286.008,00
2021/COLEC/000002	Fundación Secretariado Gitano	175.576,00
2021/COLEC/000003	Fundación de trabajadores de la siderurgia integral	170.000,00
2021/COLEC/000004	Asociación Gitana Kale Dor Kayiko	331.772,00
2021/COLEC/000005	Fundación Gizakia	85.000,00
2021/COLEC/000006	Fundación Integrando	85.000,00
2021/COLEC/000007	Hegala Norte	127.500,00
2021/COLEC/000008	Fundación Fondo Formación	680.000,00
2021/COLEC/000009	Fundación Adsis – Gasteiz	255.000,00
2021/COLEC/000010	Asoc. Para La Reinserción Social Erroak	13.872,00
2021/COLEC/000011	Asoc. Para La Reinserción Social Erroak	340.000,00
2021/COLEC/000012	Fundación Claret Sozial Fondoa	42.500,00
2021/COLEC/000013	Zubiko Trebakuntza eta Lan Sustapena Elkartea	248.200,00
2021/COLEC/000014	Zabaltzen-Sartu Koop Elk de Trabajo Asoc. e Inic Social	425.000,00
2021/COLEC/000015	Fundación Itaka-Escolapios	85.000,00
2021/COLEC/000016	EHLABE	85.000,00
2021/COLEC/000017	Peñascal S. Coop.	340.000,00
2021/COLEC/000018	EHLABE	510.000,00
2021/COLEC/000019	EHLABE	382.500,00
2021/COLEC/000021	Asociación claretiana para el desarrollo humano Sortarazi de Bilbao	85.000,00
2021/COLEC/000022	Gaztaroa Sartu Koop. Elkartea	425.000,00
2021/COLEC/000023	Fundación EDE/EDE Fundazioa	127.500,00
2021/COLEC/000025	Caritas Diocesana de Bilbao	127.500,00
	Guztira	5.432.928,00